2021eko martxoan erregistratutako langabezia

2021ko martxoan zehar LANBIDEko bulegoetan % 0,77 langabe gehiago erregistratu dira, langabe kopurua 130.021 da, aurreko hilean baino 993 gehiago. Langabetuen hazkunde hau, litekeena da lan merkaturen egoeraren islada erreala baino, SEPEk jasandako zibererasoaren ondorioz sortutako prozesu administratiboen arrazoi izatea. Martxoan normalean langabezia murriztu egiten da, baina 2008ko krisiaren urte latzenetan ez zen horrela izan. Martxotik ekainera arte langabeziak bilakaera positiboa izaten du normaltasun ekonomiko urteetan.



	mar.-07	mar.-08	mar.-09	mar.-10	mar.-11	mar.-12	mar.-13	mar.-14	mar.-15	mar.-16	mar.-17	mar.-18	mar.-19	mar.-20	mar.-21
Saldo	-803	-731	5437	982	6095	2588	1335	2112	510	-619	-1066	-71	-1911	10974	993

Aurreko urteko martxoarekin alderatuz, osasun krisiaren hasiera, 1.808 pertsonetan hazi da langabezia. Bilakaerak urte arteko saldoaren murrizketa azkarra ageri du. 2020ko otsailarekin alderatuz (krisi hasi aurreko hilabetea) 12.782 langabe gehiago zenbatu dira,.



2021eko martxoan erregistratutako langabezia

- **SEXUA**

Azken hilabetean, balore absolutuetan, langabezia emakumezkoen artean gehiago hazi da (+598) gizonezkoen artean baino (+395). Urte arteko saldoari dagokionez, emakumezkoen artean gehiago hazi da (+1.248) gizonezkoen arten baino (+560). Gaur egun langabeen % 55,6 emakumeak dira.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan langabezia hazkunde nabarmenenak adin piramidearen muturretan eman dira; 25 urte azpikoen artean 375pertsonatan hazi da eta 54 urte gorakoen artean 388 pertsonatan. Urte arteko bilakaeran ere muturretan izan da hazkunde handiena; 24 urte azpikoen artean +% 15,53; 54 urte gorakoen artean +% 4,41. 25 eta 44 adin tartean langabezia murriztu da

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Martxoan zehar, langabezia hazi egin da sektore guztietan industrian izan ezik (-% 0,42). Hazkunde handiena jasan duen sektorea Eraikuntza izan da (+% 1,29), ondoren lehen sektorean (+% 1,26) eta, azkenik, zerbitzu sektorean (+% 0,39). Aurretik enplegurik izan ez dutenen artean % 3,64 hazi da. Balore erlatiboetan eta aurreko urteko datuarekin alderatuz lehen sektoreko hazkundea (+% 4,08) eta zerbitzu sektorekoa (+% 0,64) nabarmentzen dira. Aurretik enplegurik izan ez dutenen artean % 12,43 hazi da.

Datuak zehatzago aztertuta, langabezia murrizketa handienak izan dituzten jarduerak hauek izan dira: janari eta edarien zerbitzuak (-87), ostatu zerbitzuak (-59) eta metalurgia (-56). Langabezia hazkunde nabarmenenak etxebizitzak langile enplegatzaile gisa (+133), eraikuntza bereziko jarduerak (+115) eta eraikinen zerbitzuak eta lorezaintza jarduerak (+104) izan dira.

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 1.004 pertsonatan hazi da (+% 1,48) eta epe laburrekoa 11 pertsonatan (+% 0,02). Urte osoari begiratuz gero, epe laburreko langabeen artean murrizketa bat eman da (-% 13,25) eta epe luzekoen artean hazkundea (+% 19,36). Gaur egun 68.802 langabe, % 52,9, epe luzeko langabeak dira.

- **LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**

Martxoan langabeziaren bilakaera hiru lurraldeetan ondorengoa izan da: Araban % 0,2 hazi da (43 pertsona gehiago), Gipuzkoan % 0,48 hazi da (165 pertsona gehiago) eta Bizkaian % 1,08 hazi da (785 pertsona gehiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz Arabak erregistratu du eboluzio okerrena % 2,10eko hazkundearekin; Gipuzkoak jarraitzen dio % 1,37ko igoerarekin eta azkenik Bizkaian % 1,23 hazi da.

Hiriburuak aztertuta, Bilbon azken hilean 315 pertsonatan hazi da langabezia (+% 1,27), Gasteizen 72 pertsonatan (+% 0,42) eta Donostian 37 pertsonatan (+% 0,42). Hazkunde nabarmenak izan dituzten beste eskualde batzuk, Ezker Eskualdea (+233), Bidasoa Behera (+90) eta Txorierri (+71) izan dira. Urola Kostan (-71), Lea-Artibain (-49) eta Urola Erdian (-28) izandako murrizketak nabarmentzen dira.

Erregistratuko langabezia indize altuenak dituzten udalerriak hauek izan dira: Oion (% 21,61), Sestao (% 19,54), Balmaseda (% 17,67), Alonsotegi (% 17,02) eta Lanestosa (% 16,95%).

• LANGABEZIA-PRESTAZIOA

2021ko martxoan 43.662 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 1.088 langabe gutxiagok. Langabeen % 33,6k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. 23.703 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 18,2 dira horiek. 19.959 langabek (% 15,35), berriz, langabezia prestazioa jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 35,3), Araban % 32,5koa da eta Bizkaian % 33,1ekoa.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabezia estaldura-tasa 1.1 puntu murriztu da; aurreko urtearekin alderatuz 0.49 murriztu da.

Martxoan ordaindutakoaren araberako prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua eta langabezia prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua murriztu egin da.

• JATORRIA

Langabeen % 16,25 (21.123 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, langabezia % 0,61 hazi da atzerritarren artean, eta % 1,58 bertakoen artean. Urte arteko erlazioan, atzerritarren arten langabezia % 1,97 hazi da, eta bertakoen artean % 1,30.

Langabe atzerritarren % 33,1 Afrika iparraldekoak dira, % 25,2 Latinoamerikatik datoz, % 18,3 Europako Esparru Ekonomikotik, % 13,6 Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 5,8, azkenik, Asiatik. Martxoan Latinoamerikatik etorritako pertsonen artean hazi da gehien langabezia (+116), eta Afrika iparraldetik etorritakoak ondoren (+96).

• IKASKETA MAILA

Langabeen % 60,2k (78.239 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 1.015 langabetu gehiago erregistratu dira. Talde horretan % 1,31 hazi da langabezia azken hilean. Azken urtean % 1,69 hazi da langabezia talde honetan. Hileko erlazioan gehien hazi den taldea izan da.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 9,0 dira. Talde horretan % 0,41 hazi da langabezia azken hilean, eta azken urtean % 0,15 murriztu dira.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 24.272 dira, hau da, langabeen % 18,7. Talde hau martxoan zehar % 0,22 hazi da, eta azken urtean % 2,99. Urteko erlazioan gehien hazi den taldea da, balore erlatiboetan.

Azkenik, langabeen % 12,2k (15.819 lagun), unibertsitateko ikasketak ditu. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 0,78 murriztu da langabezia azken hilabetean eta % 1,14 azken urtean. Hileko eta urteko erlazioan gehien murriztu den taldea izan da.

• KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan 59.149 langabe gutxiago daude aurreko hilean baino (% 1,48ko murrizketa). Guztira 3.949.640 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 0,77 hazi da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziak ondorengo bilakaera izan du: Nafarroan % 1,16 murriztu da, Errioxan % 0,64, Kantabrian % 3,37 eta Gaztela eta Leonen % 2,15. Katalunian % 1,25 murriztu da eta Madrilen % 1,22.

Urte arteko erlazioan % 1,41 hazi da langabezia EAEn, Estatuan % 11,31.

Lan-eskatzaile langabeak 2021ko martxoan

	mar-2021	ots-2021	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	57.738	57.343	395	0,69
EMAKUMEZKOAK	72.283	71.685	598	0,83
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	11.078	10.703	375	3,50
GIZONEZKOAK	5.824	5.580	244	4,37
EMAKUMEZKOAK	5.254	5.123	131	2,56
25-44 URTE:				
GUZTIRA	53.853	53.834	19	0,04
GIZONEZKOAK	23.016	23.130	-114	-0,49
EMAKUMEZKOAK	30.837	30.704	133	0,43
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	65.090	64.491	599	0,93
GIZONEZKOAK	28.898	28.633	265	0,93
EMAKUMEZKOAK	36.192	35.858	334	0,93
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.804	2.769	35	1,26
INDUSTRIA	15.037	15.101	-64	-0,42
ERAIKUNTZA	8.454	8.346	108	1,29
ZERBITZUAK	87.362	87.022	340	0,39
AURREKO ENPLEGURIK GABE	16.364	15.790	574	3,64
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	21.898	21.855	43	0,20
BIZKAIA	73.559	72.774	785	1,08
GIPUZKOA	34.564	34.399	165	0,48
EAE	130.021	129.028	993	0,77

2021eko martxoan erregistratutako langabezia

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	4.512	12,2%	90	2,04	24	0,53
Oarsoaldea	3.972	10,9%	32	0,81	32	0,81
Donostia-S.Seb.	8.754	9,9%	37	0,42	256	3,01
Donost.Mendebaldea	3.394	9,2%	36	1,07	140	4,30
Tolosaldea	2.203	9,4%	35	1,61	69	3,23
Urola Erdia	1.372	8,9%	-28	-2,00	37	2,77
Goiherri	1.772	8,3%	34	1,96	59	3,44
Deba Garaia	2.619	8,7%	-4	-0,15	-7	-0,27
Deba Behera	2.968	11,2%	-1	-0,03	-103	-3,35
Urola Garaia	1.194	9,9%	5	0,42	-24	-1,97
Urola Kosta	1.804	8,1%	-71	-3,79	-16	-0,88
GIPUZKOA	34.564	9,9%	165	0,48	467	1,37
Vitoria-Gasteiz	17.080	13,4%	72	0,42	475	2,86
Aialako Ibarra	2.449	12,9%	18	0,74	9	0,37
Arabar Errioxa	769	14,0%	-9	-1,16	36	4,91
Arabako lautada	805	10,6%	-9	-1,11	62	8,34
Gorbeia inguruak	323	6,9%	-10	-3,00	9	2,87
Arabako Ibarrak	435	8,5%	-21	-4,61	26	6,36
Arabako Mendialdea	121	7,7%	1	0,83	5	4,31
ARABA	21.898	12,9%	43	0,20	450	2,10
Gobela	5.266	10,3%	43	0,82	9	0,17
Txorierri	2.534	11,1%	71	2,88	106	4,37
Uribealdea	3.406	10,3%	-9	-0,26	55	1,64
Durangaldea	3.789	10,2%	12	0,32	-41	-1,07
Busturialdea	2.496	11,6%	40	1,63	8	0,32
Lea-Artibai	1.081	9,0%	-49	-4,34	-45	-4,00
Enkarterriak	2.167	14,1%	23	1,07	-98	-4,33
Arratia-Zornotza	1.677	9,6%	39	2,38	4	0,24
Arratia-Nerbioi	1.485	11,4%	8	0,54	69	4,87
Bilbo	25.198	15,1%	315	1,27	604	2,46
Ezkerraldea	19.237	15,5%	233	1,23	176	0,92
Ibaizabal	5.119	12,7%	60	1,19	67	1,33
BIZKAIA	73.559	13,2%	785	1,08	891	1,23
EAE	130.021	12,1%	993	0,77	1.808	1,41

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.

** Tolosaldeko, Arabar lautadako eta Durangaldeko datuak ez dira fidagarriak administrazio-kudeaketa arrazoiengatik. Arrazoi horiek Abaltzisketako, Alegria-Dulantziko eta Abadiñoko erregistratutako langabetu kopurua haztea ekarri du, helbide osatu gabe zegoen kasuetan.